

IZEN ONA

Nok ez daki Cervantes nor zan eta bere idaztirik aundiena ta mundu zabalean ospe aundikoa zein dan?

Eta nok ez dau entzun Cervantes euskaldunen lagun ona zala eta euskaldunak bere liburuetan aita-tzen dauzanean, goratu egiten dauzala beti?

Umore onekoa dan Mantxa'ko Kixote liburu orretan, bein baiño geiagotan aitatzen dauz euskaldunak eta euren alde berba egin.

Olako zati bat ekarriko dautzuet ZER aldizkari onen irakurleai.

Idazti orren atal guztiak erakusten dabe egillearen buru argia eta barre eragiteko ba-dira Kixote Jaunaren otsein dan Santxo Pantza'ren jazokizun batzuk, batez be orain gogoratuko dogun Barataria Ugartearen agintari egin ebenekoa.

Lagun-talde aundiakin eroan eben Santxo, milla auzo eukazan erritxu batera, Duke Jaunak eukazenetatik onenatarikoa zan errira.

An adierazo eutsoen Barataria Ugartea zala, toki areri Baratario izena egokiolako, baita duan emoten eutsoelako.

Erri-ingurura eltzean erriko Jaurleak urten eutsoen bidera bera artzera: Kanpaiak jo ebezan, auzoko guztiak poztasunaren ezaugarria emon eben eta aundikiro eleiza nagusira eroan eta Jaungoikoari eskerrak emon eutsoezan, eta gero arau baragarriak beteteko erriko giltzak emon eutsoezan eta Barataria Ugarteko betiko agintaritzat artu.

Agintariaren soiñekoak, bizarrak, loditasunak eta txikitasunak konkortuta eukazan ango gizatalde guztiak.

Azkenez, eleizatik atera eta epaitegira eroan eta epaiketak egiteko jesarri -azo eben.

Baiña Santxo'ri ez eutsoen emoten berak jan gura ebana eta gosekilik erabillen.

Osagillea eukan. Onen izena Pedro Recio de Mal Agüero eta beronen erria Tirteafuera.

Bein ez eutsen emon Santxo'ri jatekorik naikoa eta Santxo asarratu egin zan: Osagilleari aurkia jaurti gura izan eutson burura eta lenbaitlen andik atera egiela agindu eban gogor.

Beste bein (eta emen dago nire asmoa, idazlan au idazten asi nazenetik eta IZEN ONA idazpurua ipinteagaz agertu nai dodana) mai-zaiñak leiotik begiratu eban eta gero esan eban: Karta-banatzaillea dator!

Eldu zan Karta-banatzaillea Santxo ta onen gizataldea egoan lekura, sartu zan barrura izerditan, eta ikaraturik sakeletik papel bikoitxa atarez Gobernadorearen eskuetan ipiñi eban eta Santxo'k etxezaiñari agindu eutson onen gaiñeko idazkia irakurri egiala. Auxe iñoan: Barataria Ugarteko agintari dan Santxo Pantza'ri, beraren eskura edo bere idazkariaren eskuetara.

Ori entzunik, Santxo'k esan eban: Zein da emen nire idazkaria? Eta aurrez egoan batek erantzun: Neu naz, jauna, idazten eta irakurten dakidalako eta ganera bizkaitarra naz.

Gogoratu dagigun ondo ZER aldizkariaren irakurle euskaldunok, entzundako erantzun au eta poztu gaitez. Ez bakarrik Santxo Kixote, Cervantes'ek, aldi aretako beste askok be olako gogapen ona eukela euskaldunai buruz.

Erantzun ori urrezko izkiz zintzeldu-bearrekoa da. Euskaldunak iltzailleak ez ba'gara, euskaldun izateagaz ederto izan geintekoz Kaiser ber-beraren idazkari.